

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako etxebizitza babestuko errentariak 8 puntuko kalifikazioa eman diote etxebizitzarekiko gogobetetze orokorrari

*Eskubide Sozialetako Departamentuak Nafarroako etxebizitza babestuko errentarien 2018ko inkestari buruzko txostena aurkeztu du*

Asteazkena, 2018.eko irailak 26

Nafarroako etxebizitza babestuko errentarien bi herenek baino gehiagok (% 65,5) 8 puntu edo gehiagoko kalifikazioa ematen diote etxebizitzarekiko gogobetetzeari, eta errentari guztien batez besteko balorazioa 10etik 7,95 puntukoa da. Berariaz nabarmendu behar da Alokatzeko Poltsari atxikitako errentarien batez besteko balorazioa, ia 9 puntukoa, eta sustapen handietan bizi diren pertsonen gogobetetze-maila orokorra 7,39 puntukoa da, batez beste.

Hauexek dira, Gizarteratzeko eta Gizarte-Babeserako zuzendari nagusi Gema Mañuk eta Errealitate Sozialaren Behatokiako zuzendari Antidio Martínez de Lizarrondok asteazken honetan aurkeztu duten txosteneko [datu](#) batzuk.

Landa-lana 2018ko udaberrian egin zen. Eskubide Sozialetako Departamentuak, Errealitate Sozialaren Behatokiaren bitartez, telefono bidezko inkesta egin zien Nafarroako Gobernuak Alokatzeko Poltsari atxikitako errentariei zein NASUVINSAk kudeatzen ez dituen errenta babestuko sustapenetako –gehienak, pribatuak– errentariei, zerbitzuari buruz duten iritzia jasotzeko.

Emaitzak, 2017an argitaratutako NASUVINSAn errenta babestuko etxebizitzari buruzko azterlanak eta Alokatzeko Poltsari atxikitako etxebizitzaren jabe eta jabe-ohiei 2017an egindako iritzi-inkesta osatzea xede duen txosten batean bildu dira.

Azterlanak 4.035 etxebizitza barne hartu ditu, eta horietarik, 538 etxebizitza Alokatzeko Poltsari atxikitakoak dira, 2.420 etxebizitza sustatzaile pribatu nagusienak eta 1.077 etxebizitza beste sustatzaile pribatu batzuenak eta sustapen publikoren batekoak. 540 etxebizitzetan bizi diren pertsonak inkestatu dira; horietarik, 163 pertsona Poltsari atxikitako errentariak dira (inkestatu guztien % 30), 203 pertsona sustatzaile pribatu nagusien errenta babestuko etxebizitzetako errentariak, eta 174 pertsona gainerako sustatzaileen etxebizitzetan bizi direnak.

Hauexek dira inkestaren helburu espezifikoak: errentariak behar adinako informazioa jaso dutela uste ote duten eta alokairuaren prezioa egokia iruditzen zaien egiaztatzea eta etxebizitzarekiko, esparru komunekiko nahiz auzokideekiko duten gogobetetze-maila orokorra

ezagutzea. Halaber, errentan hartutako etxea aldatzeko edo epe labur eta ertainean etxebizitza erosteko asmoa duten ezagutu nahi da. Azkenik, krisialdiak haien artean izandako ondorioak aztertzen ere ahalegindu dira, ezin ordainduzko egoerak edo ordainketetan izandako atzerapenak ikertuz.

Txostenean jasotakoaren arabera, gogobetetze-maila orokorrari buruzko atalean, Nafarroako Gobernu Alokatzeko Poltsari atxikitako etxebizitzetako errentariak sustapen pribatuetako errentariak baino kalifikazio handixeagoa eman dute planteatutako gaitan. Hartara, erreklamazioei buruzko informazioan ez beste galdera guztietan, 8 puntutik gorako batez besteko kalifikazioak eman dira, kalifikaziorik handiena 10 puntukoa izanik, eta esparru komunei buruzko kalifikazioa ia bikainekoa da, 8,98 punturekin, batez beste. Berariaz nabarmentzekoa da esparru komun balarazioan nahiz erreklamazioei buruzkoan antzemandako aldea, azken gai emandako kalifikazioa 7,72 puntukoa delarik.

Sustatzaile handi eta txikien artean ez dago ia desberdintasunik, baina oro har, kalifikazio altuxeagoa izan ohi da sustatzaile txikien etxebizitzetan. Arlo desberdinei buruzko batez besteko kalifikazioak oso parekoak diren arren, sustatzaile handiek kalifikazio hobek jaso ohi dituzte esparru komun kalitatean eta alokairuaren prezioan, eta tamaina txikiagoko sustatzaileek balarazio hobea izan ohi dute erreklamazioei buruzko informazioan, etxebizitzaren kalitatean eta gogobetetze-maila orokorrean.

Kontratua sinatu aurretik jasotako informazioari dagokionez, emaitzek gogobetetze-maila orokorra altua dela erakusten dute (7,2 puntu), are altuagoa Alokatzeko Poltsari atxikitako errentarien kasuan (8,21). Erreklamazioak aurkezteko aukerari buruzko informazioak 6,23 puntuko batez besteko kalifikazioa lortu du, hornigaietan alta egiteari buruzko informazioak 7,57 puntu eta 7,8 puntu inguru dirulaguntza urtero berritu beharri buruzko informazioak.

Hasierako informazioari buruzko gogobetetze hau alokairuaren prezioari buruzko iritzietan ere islatu da. Gehienek ustez, prezioa arras ona da, eta erdiek bikain kalifikazioa eman diote (9-10 puntu).

Etxebizitzaren kalitateari dagokionez, iritzi orokorra ere positiboa da, 8 puntuko batez bestekoarekin, eta kalifikazioen % 80 zazpi eta 10 puntu bitartekoak direla. Esparru komun kasuan, 7,15 puntuko batez besteko kalifikazioa jaso dute. Kontuan hartzekoa da Alokatzeko Poltsako errentariak esparru komun kalitateari emandako balarazioa (8,98 puntukoa), gainerako inkestatuena (6,3) baino dexente altuagoa. Esparru komun kalitateak etxebizitzarenak baino balarazio txarragoa izan ohi duen arren, askoz ere kexa gehiago biltzen dira etxebizitzari buruz esparru komunei buruz baino. Horrela, errentarien % 40 inguruk erreklamazioen bat aurkeztu dute inoiz etxebizitzaren egoerari buruz, eta % 20,9 besterik ez da kexatu esparru komun egoeragatik.

Bestetik, inkestatutako pertsonen % 27,8k epe hurbilean etxebizitza erosteko asmoa duela azaldu du eta % 47k etxebizitzaz aldatu nahi du era askotako arrazoiak tarteko; hala nola, bizilagunekiko elkabizitza, etxebizitzaren tamaina edo kokapena.

Azkenik, errentariak bete beharreko obligazioei dagokienez, inkestatutako % 22k atzerapenen bat edo beste izan du ordainketetan azken 12 hilabeteetan. Atzerapen horiek alokairuari dagozkio nagusiki (% 22aren % 63,5), eta hornigaien ordainketetan, atzerapen gehiago egon ohi dira elektrizitatean (% 15,7) besteetan baino.